

## ZINTZO MINTZO 30 URTE! BEKA 2022ko abenduaren 3a

### OINARRIAK

#### 1. XEDEA

Urretxuko eta Zumarragako euskararen erabilera areagotu, euskara elkarteari eta bi herrietako euskaldunen komunitatea indarra emanaz.

Horretarako, deialdi honetan, 2023an euskara elkarteak 30 urte betetzen dituela aitzakiatzat hartuta ikerketa bat egin nahi da. Batetik, euskara elkartearen 30 urte hauetako ibilbidea aztertuko da, eta bestalde, euskal komunitate digitala sustatzeko, elkartearen komunikazio bide berrietan egokitzeko eta belaunaldi berrietako gazteengana iristeko aurrera begirako proposamena egin.

#### 2. ZENBATEKOA

Bekaren zenbatekoa 33.000 eurokoa izango da. Bi zati izango ditu:

- 12.000 eurokoa beka (ikerketa proiektua)
- 21.000 euro sare digitalaren elikatzea

#### 3. HIZKUNTZA

Ikerketa proiektua eta ikerketaren azterlana euskaraz idatzi eta aurkeztu beharko dira.

#### 4. ESKATZAILEAK

Beka norbanakoek jaso ahal izango dute.

#### 5. AURKEZTEKO EPEA ETA BEKAREN IRAUPENA

Proposamenak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 9an amaituko da, eta epaimahaiak lanak aztertu ostean, 2023ko urtarrilaren 21ean jakinaraziko da saritutako ikerlana zein den.

Egun horretatik aurrera, 9 hilabeteko epea izango dute saridunek ikerketa aurkezteko.

#### ESKAERA EGITEKO ARGIBIDEAK

Informazio gehigarria, oinarriak, eskaera orria eta gainerakoak gure sareetan eskuratu daitezke.

#### ESKAERA EGITEKO DOKUMENTAZIOA

Beka eskuratzeko eskaerak dokumentazio hau eduki behar du:

1. Zintzo Mintzo beka eskatzeko orria, behar bezala beteta (eredua gure sareetan eskuragarri)
2. Egilearen aurkezpen laburra, egoki iritzi gero curriculumaren kontu nabarmenenak ere aipatuz, eta bide batez ere hizkuntzarekin lotutakoak zehaztuz.
3. Eskatzaileek euskaraz jarduteko gaitasuna frogatu beharko dute C1 edo baliokidea aurkeztuta.

4. Gaiaren azalpena eta lana nola burutuko litzatekeen azaltzen duen proiektua, ahalik eta zehatzena (5 orrialdekoa gehienez), ondokoak azalduz:

- Helburuak
- Materialak, baliabideak eta lan metodologia
- Lana garatzeko kronograma
- Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa

5. Behin proiektua paperean aurkeztuta elkarrizketa baten bidez aurkeztu beharko du.

## 6. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Dokumentazioa 2023ko urtarrilaren 9a baino lehen aurkeztu beharko da. Dokumentu guztiak PDF bihurtu eta posta elektronikoz bidali beharko dira, honako helbidera: **[zintzomintzoeuskaraelkarte@gmail.com](mailto:zintzomintzoeuskaraelkarte@gmail.com)**

## 7. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

7.1. Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren araberrako txosten bat bidaltzea bekaren lehen 3 hilabeteak igarotakoan.

7.2. Bekaren 9 hilabeteak igarotakoan ikerlanaren azken erredakzioa aurkeztea.

7.3. Lanaren luzera gutxienez 30 eta gehienez 60 orrialde artekoa izango da. Testua ez den elementu oro orrialdeetan zehar edo, tokirik ez balego, lanaren bukaeran txertatuko da, eranskin gisa. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontuan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxienekoak betetzeko.

7.4. Bekarako lana bukatutakoan, egileak konpromisoa hartzen du egindako lanaren gizarteratzean eta zabalkundean parte hartzeko.

7.5. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalterik ez badu, justifikazio edo gaintitu ezinezko arrazoirik gabe, oinarri hauen 11. puntuari jasotako neurriak ezarriko zaizkio irabazleari. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez.

## 8. AURREKONTUA

Oinarri hauen bidez izendatutako beka emateko Zintzo Mintzok 2023ko aurrekontuetarako onartu zen

## 9. BEKAREN ORDAINKETA

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak egin ondoren:

- Kopuru osoaren %30a, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren %30a, beka ematen denetik 3 hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen txostena (7.1. oinarriaren arabera) aurkeztu eta ontzat eman ondoren.
- Gainontzeko %40a, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta ontzat eman ondoren. Lana amaituko ez balitz, oinarri hauetako 11. Puntua (itzulketak eta kalte-ordainak) hartuko da oinarritzat.

## 10. EPAMAHAIA ETA IRIZPIDEAK

Epaimahaia Zintzo Mintzo euskara elkarteko kideek osatuko dute.

Bekaren irabazleei erabakia publikoki argitaratu aurretik emango zaie sariaren berri, publiko egiten den egunera arte isilpean gordetzeko konpromisoarekin.

Epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan sariak emateko:

Ikerketa-lanaren kalitatea, zuzentasuna, erakargarritasuna eta orijinaltasuna; hizkuntzaren egokitasuna; interes soziala eta bideragarritasuna.

Epaimahaiak eman gabe utzi dezake saria, aurkeztutako aurkeztutako laginak eta proiektuak gutxieneko kalitate-ezaugarriak betetzen ez dituela iritziz gero.

Bekaren prozedurak irauten duen bitartean, berriz, epaimahaikideek egin ditzaketan ekarpenak aintzat hartzeko konpromisoa adierazi beharko dute saridunek.

## 11. ITZULKETAK ETA KALTE-ORDAINAK

11.1. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria aurkezteko epea bukatu baino lehen eta Zintzo Mintzok aurretiaz errekeritu gabe, bekadunak bere borondatez saria itzultzen badu, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu. Zintzo Mintzok berandutze interesak kalkulatuko ditu. Diru laguntzen lege Orokorraren 38. artikuluan jasotakoari jarraituta.

11.2. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatuta Zintzo Mintzok errekeritu ondoren saria itzultzen denean, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa itzuli beharko du, dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz gain.

## 12. ARGITALPENAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

Lan originalak aurkeztu behar dira, lehen argitaratu gabekoak. Beste beka prozesuetan aurkeztutakoak ez dira onartuko.

Urretxuko eta Zumarragako Udalek eta Zintzo Mintzo Euskara Elkarteak argitaratu ahal izango ditu lanak osoki eta partzialki. Argitalpena edozein formatu eta markotan egin ahal izango da.

Parte hartzaileak dira deialdi honen esparruan garatzen dituzten proiektuen originaltasunaren eta egiletzaren erantzule, eta alde horretatik, bi Udalek zein Zintzo Mintzok erabil ditzaten bermatzen dute, eta berariaz salbuesten dituzte Udalak eta Elkarteak zuzenean edo zeharka kalte edota galerengatik sortu litezkeen ardurak guztietatik, haien aldetik berme hori betetzen ez bada.

Zintzo Mintzorenak eta bi Udalenak dira bekaren ondoriozko proposamenak ustiatzeko, erakusteko eta erreproduzitzeko eskubideak. Beraz, eduki horiek erabili ahal izateko, aurretik hiru erakundek baimendu beharko dute.

Nolanahi ere, eduki horiek gero ikerketatan erabiliz gero, ikerketa lanean argi azaldu beharko da bekaren laguntzarekin gauzatu dela, esaldi honen bidez: "Lan hau 2023an Zintzo Mintzok emandako bekaren laguntzarekin egin da".

### 13. PROPOSAMENAK USTIATZEKO ETA ERAKUSTEKO ESKUBIDEAK

Lanaren egileak, Zintzo Mintzo Euskara Elkartek eta bi Udalek eskubidea dute bekaren ondoriozko proposamenak komunikatzeko, erakusteko edota erabiltzeko.

Lanaren emaitzan zein publizitatean (kartelak, material inprimatua....) Zintzo Mintzo elkartearen eta bi Udalen logoa edo armarrria azaldu beharko da, eta publizitatearen kasuan, hiru erakundeek oniritzia eman beharko diote publizitate testuari kaleratu aurretik.

### 14. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Beka eskaera aurkeztean, oinarri honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela eta oinarriek diotena goitik behera onartzen duela aitortzen du eskatzaileak. Era berean, adierazten du, eskaeran jasotako datu pertsonal horiek bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatua ematea eta Zintzo Mintzorenak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea; eta baimena ematen du datu horiek gai honi lotutako jakinarazpenen kudeaketan bakarrik erabil daitezela. Hala ere, datu pertsonalak babesteko araudi orokorrean aurreikusitako kasuetan, beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei datuok helarazi edo utzi ahalko zaizkie.

#### Antolatzailea:



#### Babesleak:

